Bermeak itzultzeko eta kitatzeko SPKLko 111. artikuluan eta HAKLAOko 65. artikuluan ezartzen dena aplikatuko da.	La devolución y cancelación de las garantías se efectuará de conformidad con lo dispuesto en el artículo 111 de la LCSP y el artículo 65 del RGLCAP.
10.- ADJUDIKAZIOA ETA JAKINARAZPENA	**10.- ADJUDICACIÓN Y NOTIFICACIÓN**
10.1.- Kontratazio organoak adjudikaziorako proposatzen den enpresa lizitatzaileak aurkeztutako dokumentazioa jaso ondoko bost egun baliodunetan adjudikatu beharko du kontratua (izapideak presaz eginez gero, ondoko hiru egun baliodunetan).	10.1.- El órgano de contratación deberá adjudicar el contrato dentro de los cinco días hábiles siguientes (tres en el caso de tramitación urgente) a la recepción de la documentación presentada por la empresa licitadora propuesta adjudicataria.
10.2.- Kontratuaren adjudikazioduna hautatzeko irizpide bakarra prezioa bada, eskaintzak irekitzeko epealdia amaitu ondoren hamabost egun pasatu baino lehen adjudikatu beharko da kontratua (izapideak presaz eginez gero, zortzi egun pasatu baino lehen).	10.2.- Cuando el único criterio para seleccionar a la empresa adjudicataria del contrato sea el del precio, la adjudicación deberá recaer en el plazo máximo de quince días a contar desde el siguiente al de apertura de las proposiciones (ocho en el caso de tramitación urgente).
Kontratua adjudikatzeko hainbat irizpide hartu behar badira kontuan, edo aplikatzen den irizpide bakarra bizi zikloaren kostua ahalik txikiena izatea bada, eskaintzak irekitzen direnetik bi hilabete pasatu baino lehen adjudikatu beharko da kontratua (izapideak presaz eginez gero, hilabete pasatu baino lehen), ezaugarrien taulako P) idatz zatian besterik ezarri ezean.	Cuando para la adjudicación del contrato deban tenerse en cuenta una pluralidad de criterios, o utilizándose un único criterio sea este el del menor coste del ciclo de vida, el plazo máximo para efectuar la adjudicación será de dos meses a contar desde la apertura de las proposiciones, (un mes en el caso de tramitación urgente), salvo que se hubiese establecido otro en el apartado P) del Cuadro de Características.
Eskaintza gutun azal batean baino gehiagotan aurkezten bada eta, beraz, bakoitza egintza batean ireki behar bada, aurreko epealdia C gutun azala irekitzen denetik zenbatuko da.	Si la proposición se contuviera en más de un sobre, de tal forma que estos deban abrirse en varios actos independientes, el plazo anterior se computará desde el acto de apertura del sobre C.
10.3.- Lea Ibarreko Mankomunazgoaek bi aukera edukiko ditu: kontratua eskaintza onena egin duenari adjudikatzea,	10.3.- Lea Ibarreko Mankomunazgoa tendrá alternativamente la facultad de adjudicar el contrato a la mejor oferta de conformidad con los criterios de adjudicación o declarar desierta la licitación, cuando no

adjudikazio irizpideak aplikatuta, edo kontratua adjudikatu gabe uztea, baldintzen agirietan ezarritako irizpideen arabera onar daitekeen eskaintzarik ez badago.	exista oferta o proposición alguna que sea admisible de acuerdo con los criterios que figuren en los pliegos.
Hala ere, SPKLko 152. artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz, Lea Ibarreko Mankomunazgoaek, kontratua formalizatu baino lehen, uko egin ahal izango dio adjudikatzeari herritarren interesak direla eta, edo bertan behera utzi ahal izango du izapidetutako prozedura, konponezineko akatsik gertatu bada. Batera zein bestera, enpresa lizitatzaileei konpentsazioa eman beharko die ezaugarrien taulako Q) idatz zatian ezartzen den bezala.	No obstante, en los términos previstos en el artículo 152 de la LCSP, Lea Ibarreko Mankomunazgoa, antes de formalización del contrato, podrá renunciar a adjudicarlo por razones de interés público, o desistir del procedimiento tramitado, cuando éste adolezca de defectos no subsanables, debiendo compensar a las empresas licitadoras en ambos casos en la forma prevista en el apartado Q) del Cuadro de Características.
10.4.- Adjudikazioan arrazoiak azaldu beharko dira; baliabide elektronikoen bidez jakinaraziko zaie enpresa hautagai edo lizitatzaileei eta, gainera, kontratatzailearen profilean agertuko da hamabost egunez.	10.4.- La adjudicación deberá ser motivada, se notificará por medios electrónicos a las empresas candidatas o licitadoras y, simultáneamente, se publicará en el perfil de contratante en el plazo de quince días.
Jakinarazpenean adjudikazio prozeduran izan diren enpresek adjudikazio erabakiaren kontra ondo oinarritutako errekurtsoa aurkeztu ahal izateko behar den informazio guztia eman beharko da. Honako datu hauek zehaztu behar dira, hain zuzen:	La notificación deberá contener, en todo caso, la información necesaria que permita a las empresas interesadas en el procedimiento de adjudicación interponer recurso suficientemente fundado contra la decisión de adjudicación. En particular, expresará los siguientes extremos:
a) Baztertu diren enpresa hautagaiak direla eta, bazter uzteko kontuan hartu diren arrazoien laburpena. b) Adjudikazio prozeduratik kanpo utzitako enpresa lizitatzaileei dagokienez, eskaintza ez onartzeko arrazoiak, laburtuta, eta enpresa lizitatzaileen balorazioen banakapena (adjudikaziodunarena barne). c) Nolanahi ere, enpresa adjudikaziodunaren izena, beraren eskaintzaren ezaugarriak eta onartutako gainerako eskaintza guztiak gaindituta kontratua berari adjudikatzea eragin duten onurak.	a) En relación con las empresas candidatas descartadas, la exposición resumida de las razones por las que se haya desestimado su candidatura. b) Con respecto a las empresas licitadoras excluidas del procedimiento de adjudicación, también en forma resumida, las razones por las que no se haya admitido su oferta y un desglose de las valoraciones asignadas a las distintas empresas licitadoras, incluyendo a la empresa adjudicataria. c) En todo caso, el nombre de la empresa adjudicataria, las características y ventajas de la proposición de la empresa adjudicataria determinantes de que haya sido seleccionada la oferta de ésta con preferencia a las que hayan presentado las restantes empresas licitadoras cuyas ofertas hayan sido admitidas.
Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean kontratua formalizatzeko epealdia zehaztu beharko da, SPKLko 153.3 artikuluan ezartzen den bezala.	En la notificación y en el perfil de contratante se indicará el plazo en que debe procederse a su formalización, conforme al artículo 153.3 de la LCSP.
10.5.- Aurkezten diren eskaintzak (bai onartzen direnak, bai ireki gabe baztertzen direnak, bai ireki ondoren ezesten direnak) lizitazioaren espedientean artxibatuko dira. Kontratua adjudikatu ondoren, errekurtsoak aurkezteko epealdian halakorik batere aurkezten ez bada, eskaintzarekin aurkeztutako agiriak enpresa interesdunen eskura geratuko dira. Urtebetean enpresa lizitatzaileek dokumentazioa eskatzen ez badu, ezabatu egin ahal izango da.	10.5.- Las proposiciones presentadas, tanto las declaradas admitidas como las rechazadas sin abrir o las desestimadas una vez abiertas, serán archivadas en su expediente. Adjudicado el contrato y transcurridos los plazos para la interposición de recursos sin que se hayan interpuesto, la documentación que acompaña a las proposiciones quedará a disposición de las empresas interesadas. En el caso de que las empresas licitadoras no lo soliciten en el plazo de un año, dicha documentación podrá ser destruida.
IV. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA	**IV. FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO**
11.- KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO BETEBEHARRAK	**11.- OBLIGACIONES PREVIAS A LA FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO**
11.1.- Behin betiko adjudikazioaren jakinarazpenaren hartu agiria jaso ondoren, enpresa adjudikaziodunak kontratua	11.1.- Acusado recibo de la notificación de adjudicación, la empresa adjudicataria, antes de la formalización del

formalizatu aurretik ezaugarrien taulako R) idatz zatian aipatzen diren kontratuen polizen eta lehen primen ordainagirien kopiak aurkeztu beharko ditu. Enpresak bere kargura kontratatu behar ditu aseguru horiek eta bere kargura mantendu eraikuntza aldian eta berme aldian. Aseguratutako mugak honako hauek izango dira: Lea Ibarreko Mankomunazgoaek obra bakoitzerako zehazten dituenak obren ezaugarriak, ondoko eraikinenak, aurretik zeuden ondasunenak eta egoki deritzen gainerako egoeren ezaugarriak kontuan hartuz. 11.2.- Kontratua indarrean den artean kontratazio organoak enpresa kontratistari eskatu ahal izango dio erakuts diezaiola aseguruen dokumentazioa edo, bestela, eman diezazkiola aseguru horien polizen kopiak edo ziurtagiriak, eta froga diezaiola primen ordainketak egunean dauzkala. Kontratistak eskatutako guztia egin beharko du, eta egiten ez badu, kontratazio organoak ziurtapenen ordainketa eta obrak onartzeko epealdia eten ahal izango ditu, bai eta, obrak jasota badaude, berme aldiaren konputuaren hasiera ere. Etenaldi hau ez da konputatuko kalte ordainen ondorioetarako. Gainera, eskaera ez betetzeak erantzukizunak sor ditzake. **12.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA** 12.1.- Lea Ibarreko Mankomunazgoaen kontratuak lizitazioarekin guztiz bat datorren administrazio agirian formalizatu beharko dira. Kontratua aldi baterako enpresa elkarte bati adjudikatzen bazaio, enpresek 12.2 eta 12.3 idatz zatietan ezartzen den epealdian frogatu beharko dute ura eskritura publikoan eratu dela. Elkartearen iraupena kontratua azkendu artekoa izango da. Gainera, aldi baterako enpresa elkartearen IFZ aurkeztu beharko da. 12.2.- Kontratuaren adjudikazioaren kontra kontratazioaren arloko errekurtso berezia aurkeztu ahal bada, ezin izango da formalizatu enpresa lizitatzaileei adjudikazioaren jakinarazpena bidaltzen zaienetik hamabost egun baliodun pasatu baino lehen. Kontratazio organoak enpresa adjudikaziodunari eskatuko dio kontratua formalizatzeko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik bost egun pasatu baino lehen (izapideak presaz eginez gero, hiru egun), aurreko paragrafoan ezartzen den epealdian kontratuaren formalizazioa etetea dakarren errekurtsorik aurkezten ez bada. Gauza bera egingo da errekurtsoa ebazteko eskumena daukan organoak etendura indargabetzen duenean. 12.3.- Gainerako kasuetan, enpresa lizitatzaileei adjudikazioa jakinarazten zaienetik hamabost egun baliodun pasatu baino lehen formalizatu beharko da kontratua (izapideak presaz eginez gero, zortzi egun baliodun pasatu baino lehen).	contrato, deberá aportar copia de la póliza y justificante de pago de la prima de contratación de los contratos de seguro indicados en el apartado R) del Cuadro de Características, que la empresa adjudicataria haya contratado y mantendrá a su costa durante el periodo de construcción y el plazo de la garantía. Los límites asegurados serán aquéllos que la Lea Ibarreko Mankomunazgoa determine en cada obra en función de las peculiaridades de ésta, de los edificios colindantes, de los bienes preexistentes y de cualesquiera otras circunstancias que estime oportunas. 11.2.- Durante la vigencia del contrato, el órgano contratante podrá pedir a la empresa contratista que le exhiba la documentación correspondiente a dichos seguros, o que se le entregue copia de las pólizas o certificado de los mismos, así como que se le acredite estar al corriente en el pago de las primas, con la obligación, por parte de ésta, de cumplimentar dicho requerimiento, pudiendo, en caso contrario, el órgano contratante suspender el pago de certificaciones de obra y el plazo de recepción de las obras y, en su caso, suspender el inicio del cómputo del plazo de garantía, sin que dicho periodo de suspensión sea computable a efectos de indemnizaciones, sin perjuicio de las demás responsabilidades a que hubiere lugar por causa de incumplimiento. **12.- FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO** 12.1.- Los contratos que celebre Lea Ibarreko Mankomunazgoa deberán formalizarse en documento administrativo que se ajuste con exactitud a las condiciones de la licitación. En el caso de que el contrato fuera adjudicado a una Unión Temporal de Empresas, éstas deberán acreditar dentro del plazo previsto en los apartados 12.2 y 3 siguientes la constitución de la misma en escritura pública, cuya duración será coincidente con la del contrato hasta su extinción, y presentar el NIF asignado a la Unión Temporal de Empresas. 12.2.- Si el contrato es susceptible de recurso especial en materia de contratación, la formalización no podrá efectuarse antes de que transcurran quince días hábiles desde que se remita la notificación de la adjudicación a las empresas licitadoras. El órgano de contratación requerirá a la empresa adjudicataria para que formalice el contrato en plazo no superior a cinco días (tres en el caso de tramitación urgente) a contar desde el siguiente a aquél en que hubiera recibido el requerimiento, una vez transcurrido el plazo previsto en el párrafo anterior sin que se hubiera interpuesto recurso que lleve aparejada la suspensión de la formalización del contrato. De igual forma procederá cuando el órgano competente para la resolución del recurso hubiera levantado la suspensión. 12.3. – En los restantes casos, la formalización del contrato deberá efectuarse no más tarde de los quince días hábiles siguientes (ocho en el caso de tramitación urgente) a aquél en que se practique la notificación de la adjudicación a las

12.4.- Enpresa adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua aipatutako epealdian formalizatzen ez bada, Lea Ibarreko Mankomunazgoaek lizitazioaren oinarrizko aurrekontuko ehuneko 3 eskatuko dio (BEZ kanpo) zehapen kontzeptuan; hori, lehenik eta behin, behin betiko bermearen kontra ordainduko da, eratuta egonez gero. Gainera, SPKLko 71. artikuluko 2. idatz zatiko b) letran ezartzen dena aplikatuko da. Kasu horretan, eskaintzen sailkapeneko hurrengo enpresa lizitatzaileari adjudikatuko zaio kontratua, agiri honetako 8. baldintzan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu ondoren. Aurreko idatz zatietan ezartzen diren epealdiak aplikatuko dira. 12.5.- Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak Lea Ibarreko Mankomunazgoai egotzi ahal bazaizkio, enpresa kontratistari atzerapenak eragiten dituen kalteen ordaina emango zaio. 12.6.- Kontratuari ezin izango zaio ekin formalizatu gabe dagoen artean, espedientea presaz izapidetzen denean izan ezik. 12.7.- Kontratua formalizatzeko unean bertan eta, betiere, hura gauzatzen hasi baino lehen, kontratistak Lea Ibarreko Mankomunazgoai eskuratu beharko dizkio irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema ezartzen duena eta bestetik irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduan Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren mugarriak eta helburuak bete eta osagaien neurrien aurrekontua eta kontabilitatea gauzatzen direla egiaztatzeko, ezarritako aitorpenak, bai berari bai kontratua gauzatzen berarekin elkarlanean aritu behar duten enpresa azpikontratistei dagozkienak: • Interes gatazkarik ezaren aitorpena (IGEA) (XIV. Eranskina). • Datuak laga eta tratatzeko aitorpena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (SEEP) jarduketen exekuzioa dela-eta (XV. Eranskina). • Konpromiso aitorpena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (SEEP) jarduketen exekuzioa dela-eta (XVI. Eranskina). • Ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko erantzukizunpeko adierazpena (DNSH Printzipioa) (XVII. Eranskina). • Berariazko baimena Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko agintaritzei (XVIII. Eranskina) • Egiazko titulartasunari buruzko erantzukizun adierazpena (XIX. Eranskina)	empresas licitadoras. 12.4.- Cuando por causas imputables a la empresa adjudicataria no se hubiese formalizado el contrato dentro del plazo indicado, Lea Ibarreko Mankomunazgoa le exigirá el importe del 3 por ciento del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad, que se hará efectivo en primer lugar contra la garantía definitiva, si se hubiera constituido, sin perjuicio de lo establecido en la letra b) del apartado 2 del artículo 71 de la LCSP. En este caso, el contrato se adjudicará a la siguiente empresa licitadora por el orden en que hubieran quedado clasificadas las ofertas, previa presentación de la documentación establecida en la cláusula 8 del presente Pliego, resultando de aplicación los plazos establecidos en los apartados anteriores. 12.5.- Si las causas de la no formalización fueran imputables a Lea Ibarreko Mankomunazgoa, se indemnizará a la empresa contratista de los daños y perjuicios que la demora le pudiera ocasionar. 12.6.- No podrá iniciarse la ejecución del contrato sin su previa formalización, excepto en los casos previstos para los expedientes que sean objeto de tramitación de emergencia. 12.7.- En el mismo momento de formalización del contrato y, en todo caso, antes de iniciarse su ejecución el contratista deberá entregar a Lea Ibarreko Mankomunazgoa las declaraciones, correspondientes a él mismo así como a las empresas subcontratistas que vayan a colaborar con él en la ejecución del contrato, previstas en la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, por la que se configura el sistema de gestión del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, así como en la Orden HFP/1031/2021, de 29 de septiembre, por la que se establece el procedimiento y formato de la información a proporcionar por las Entidades del Sector Público Estatal, Autonómico y Local para el seguimiento del cumplimiento de hitos y objetivos y de ejecución presupuestaria y contable de las medidas de los componentes del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia: • Declaración de Ausencia de Conflicto de Intereses (DACI) (Anexo XIV). • Declaración de cesión y tratamiento de datos en relación con la ejecución de actuaciones del plan de recuperación, transformación y resiliencia (PRTR) (Anexo XV). • Declaración de compromiso en relación con la ejecución de actuaciones del plan de recuperación, transformación y resiliencia (PRTR) (Anexo XVI). • Declaración Responsable de no causar perjuicio significativo al medio ambiente (Principio DNSH) (Anexo XVII). • Autorización expresa a autoridades del PRTR (Anexo XVIII)

V. KONTRATUA BURUTZEA

13.- KONTRATUA BURUTZEA

13.1.- OBREN ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA. Lea Ibarreko Mankomunazgoaek obraren zuzendaritza fakultatiboaren ardura edukiko duen pertsona izendatuko du; hark lanak ikuskatu, egiaztatu eta zainduko ditu, kontratatutako obra behar bezala egin dadin.

Zuzendari fakultatiboak hainbat laguntzaile eduki ditzake agindupean bere lanak egiteko. Laguntzaileak beren titulu profesionalaren edo ezagutza berezien arabera ariko dira kontratuaren zuzendaritzan.

Kontratua formalizatzen denetik hamabost egun natural pasatu baino lehen Lea Ibarreko Mankomunazgoaek kontratazio organoak izendatutako zuzendariaren berri emango dio kontratistari, eta zuzendariak gauza bera egingo du bere laguntzaileei dagokienez. Aldaketak idatziz jakinarazi beharko zaizkio enpresa kontratistari.

13.2.- KONTRATUA BURUTZEKO ARAU OROKORRAK

13.2.1- Obrak burutzea. Obrak agiri honetan eta administrazio baldintza orokorren agirian ezartzen denarekin bat etorriz egin beharko dira, eta Lea Ibarreko Mankomunazgoaek onartzen duen proiektuan ezartzen duenarekin eta obren zuzendaritza fakultatiboak enpresa kontratistari ematen dizkion interpretazio jarraibideekin bat etorriz ere bai.

Obren zuzendaritza fakultatiboak enpresa kontratistari ematen dizkion aginduak, jarraibideak eta berriemateak idatziz jaso behar dira 13.8 e) baldintzan aipatzen den aginduen liburuan; zuzendariak bere sinadurarekin baimendu beharko ditu.

Lanak egiten diren artean eta berme aldia amaitu arte enpresa kontratistak eraikuntzan sumatzen diren akats guztien erantzukizuna edukiko du.

13.2.2.- Lanen eta kalteen erantzukizuna. Enpresa adjudikaziodunak egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna edukiko du. Halaber, kontratua gauzatzean kontratistak hutsik edo okerrik egiten badu, metodo ezegokirik erabiltzen badu edo lanak gaizki egiten baditu eta ondorioz Lea Ibarreko Mankomunazgoaek edo hirugarren batek kalterik jasaten badu, bera izango da erantzulea. Hirugarrenei egiten zaizkien kalteak bere kontura ordainduko ditu.

13.2.3.- Burutzeko epealdiak. Obra burutzeko epealdi orokorra ezaugarrien taulako S) idatz zatian zehaztuko da; epealdi partzialik, egonez gero, horiek ere bai.

Obrak gauzatzeko epealdiak zuinketaren egiaztapenaren akta sinatu eta hurrengo egunean hasiko dira zenbatzen, baldin eta enpresa kontratistak erreserbarik egiten ez badu;

- Declaración responsable de titularidad real (Anexo XIX)

V. EJECUCIÓN DEL CONTRATO

13.- EJECUCIÓN DEL CONTRATO

13.1.- DIRECCIÓN E INSPECCIÓN DE LAS OBRAS. Lea Ibarreko Mankomunazgoa designará una persona que llevará la Dirección Facultativa de la obra a través de la cual efectuará la inspección, comprobación y vigilancia para la correcta realización de la obra contratada.

Para el desempeño de su función la Dirección Facultativa podrá contar con personas colaboradoras a sus órdenes, que desarrollarán sus actividades en función de las atribuciones derivadas de sus títulos profesionales o de sus conocimientos específicos y que integrarán la dirección del contrato.

La dirección designada por el órgano de contratación será comunicada a la empresa contratista por Lea Ibarreko Mankomunazgoa en el plazo de quince días naturales a contar desde la formalización del contrato y dicha dirección procederá en igual forma respecto de su personal colaborador. Las variaciones serán puestas en conocimiento de la empresa contratista por escrito.

13.2.- NORMAS GENERALES RELATIVAS A LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO

13.2.1- Ejecución de las obras. Las obras se ejecutarán con estricta sujeción a las cláusulas estipuladas en el presente Pliego, en el Pliego de Cláusulas Administrativas Generales y conforme al proyecto aprobado por Lea Ibarreko Mankomunazgoa y a las instrucciones que, en interpretación técnica de éste, diere a la empresa contratista la Dirección Facultativa de las obras.

Las órdenes, instrucciones y comunicaciones que la Dirección Facultativa de las obras estime oportuno dar a la empresa contratista se efectuarán por escrito en el Libro de Órdenes al que se hace referencia en la cláusula 13.8 e), autorizándolas con su firma.

Durante el desarrollo de las obras y hasta que se cumpla el plazo de garantía la empresa contratista es responsable de los defectos que en la construcción puedan advertirse.

13.2.2.- Responsabilidad por los trabajos y daños. La empresa adjudicataria será responsable de la calidad técnica de los trabajos que desarrolle y de las prestaciones y servicios realizados, así como de las consecuencias que se deduzcan para Lea Ibarreko Mankomunazgoa o para terceros de las omisiones, errores, métodos inadecuados o conclusiones incorrectas en la ejecución del contrato. Será por su cuenta la indemnización de los daños que se originen a terceros.

13.2.3.- Plazos de ejecución. El plazo general de ejecución de la obra y los plazos parciales, en su caso, serán los que se fijen en el apartado S) del Cuadro de Características.

Los plazos de ejecución comenzarán a contar a partir del día siguiente al de la firma del Acta de Comprobación del

bestela, erreserbarik egonez gero, kontratistari obrei ekiteko baimena emateko egintza formala jakinarazi eta hurrengo egunean hasiko dira zenbatzen. Izapidetzea presazkoa bada, kontratuari formalizatzen den egunetik hilabete pasatu baino lehen ekin behar zaio. Epealdi horretan kontratuko lanei ekiten ez bazaie, kontratua suntsiarazi ahal izango da, honako kasu honetan izan ezik: atzerapena ezin bazaie egotzi entitate kontratatzaileri ez enpresa kontratistari eta horren berri ematen bada arrazoitutako ebazpenean.	Replanteo, si la empresa contratista no formulase reservas en ella o, en el caso contrario, al siguiente de la notificación a la contratista del acto formal autorizando el comienzo de las obras. En el caso de que la tramitación se haya declarado de urgencia, el plazo de inicio de la ejecución del contrato no podrá ser superior a un mes contado desde la formalización. Si se excediese este plazo, el contrato podrá ser resuelto, salvo que el retraso se debiera a causas ajenas a la entidad contratante y a la empresa contratista y así se hiciera constar en la correspondiente resolución motivada.
Kontratuaren epealdia indarreko legerian aipatzen diren kasuetan soilik luzatu ahal izango da, bertan ezartzen diren baldintzak betez gero.	El plazo contractual sólo será prorrogable cuando concurran las circunstancias y requisitos exigidos por la legislación vigente.
13.3.- ZUINKETAREN EGIAZTAPENA. Kontratuaren burutzapena zuinketa egiaztatzeko egintzarekin hasiko da; egintza hori kontratua formalizatzen denetik hilabete pasatu baino lehen egin beharko da.	13.3.- COMPROBACIÓN DEL REPLANTEO. La ejecución del contrato comenzará con el acto de comprobación del replanteo que se realizará en el plazo máximo de un mes desde la fecha de la formalización del contrato.
Obren zuinketaren egiaztapena enpresa adjudikazioduna edo haren ordezkaria bertan dela egingo da, SPKLko 237. artikuluan eta HAKLAOko 139., 140. eta 141. artikuluetan ezartzen denarekin bat etorriz eta artikulu horietan arautzen diren ondorioekin.	La comprobación del replanteo de las obras se efectuará en presencia de la empresa adjudicataria o de su representante, de conformidad y con los efectos prevenidos por los artículos 237 de la LCSP, y 139, 140 y 141 del RGLCAP.
Beraz, obrari ezin zaio ekin zuinketaren egiaztapenaren akta egin gabe, ez eta aktan arrazoizkotzat jotzen diren erreserbak jasotzen badira ere; horrelako kasuetan, obraren hasiera etengo da edo obra bera behin betiko etetea erabakiko da.	No podrá iniciarse la obra, por tanto, sin que se haya extendido el acta de comprobación del replanteo o cuando se hagan constar en ella reservas que se estimen fundadas, en cuyo caso se suspenderá su iniciación o se acordará la suspensión definitiva.
Kontratua suntsiarazteko arrazoiak dira zuinketaren egiaztapenean justifikatu gabeko atzerapena gertatzea eta Lea Ibarreko Mankomunazgoaek lau hilabete baino aldi luzeagoa etetea obren hasiera.	La demora injustificada en la comprobación del replanteo y la suspensión de la iniciación de las obras por plazo superior a cuatro meses por parte de Lea Ibarreko Mankomunazgoa son causas de resolución del contrato.
Halaber, obra ezingo da hasi segurtasun eta higiene plana onartu gabe 1627/97 Errege Dekretuak zehazten duenaren arabera (dekretu horren bitartez eraikuntza obretako segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dira).	Igualmente, no podrá iniciarse la obra sin la previa aprobación del Plan de Seguridad e Higiene, a tenor de lo dispuesto en el Real Decreto 1627/97, por el que se establecen las disposiciones mínimas en materia de seguridad y salud en las obras de construcción.
Zuinketaren egiaztapenaren akta eta lan programa (edukia geroago arautuko da) onartzen denean ezartzen diren epealdi partzialak kontratuaren osagaiak izango dira eta horren arabera eskatuko dira.	El acta de comprobación del replanteo y los plazos parciales que procedan fijarse al aprobar el programa de trabajo, cuyo contenido se regula posteriormente, se entenderán como integrantes del contrato a los efectos de su exigibilidad.
13.4.- EZINBESTEKO KASUAK. Ezinbesteko kasuetan enpresa kontratistak jasaten dituen kalte-galeren ordaina jaso ahal izango du, baldin eta zuhurtziarik gabe jardun ez badu.	13.4.- FUERZA MAYOR. En casos de fuerza mayor, y siempre que no exista actuación imprudente por parte de la empresa contratista, ésta tendrá derecho a una indemnización por los daños y perjuicios que se le hubieren causado.
Ezinbesteko kasuak SPKLko 239. artikuluan arautzen dira. Kasu horiek HAKLAOko 146. artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz izapidetuko dira.	Tendrán la consideración de casos de fuerza mayor los establecidos en el artículo 239 de la LCSP, que se tramitarán de conformidad con lo dispuesto en el artículo 146 del RGLCAP.
13.5.- ZEHAPENAK KONTRATUAREN XEDEA GAIZKI EGITEAGATIK, ZATI BAT EZ EGITEAGATIK ETA ATZERATZEAGATIK. Kontratuaren xedea gaizki egiten bada, kontratua burutzeko ezarritako konpromisoak edo baldintza bereziak betetzen ez badira edo enpresa kontratistak kontratuan zehazten den prestazioetako baten burutzapen	13.5.- PENALIDADES POR EJECUCIÓN DEFECTUOSA, INCUMPLIMIENTO PARCIAL Y DEMORA. En caso de cumplimiento defectuoso de la prestación objeto del contrato, incumplimiento de los compromisos o de las

partzialа betetzen ez badu berari egotzi ahal zaio arrazoi batengatik, zehapena ezarri ahal izango da, ezaugarrien taulako U) idatz zatian ezartzen bada. Enpresa adjudikaziodunak kontratua burutzeko epealdia eta Lea Ibarreko Mankomunazgoaek zehaztutako epealdi partzialak bete beharko ditu. Enpresa kontratistak ez badu betetzen aurreko epealdi horietako bat berari egotz dakiokeen arrazoi batengatik, Lea Ibarreko Mankomunazgoaek bi aukera edukiko ditu: kontratua suntsiarazi edo zehapen ekonomikoa ezarri. Zehapenen zenbatekoak ezaugarrien taulako U) idatz zatian finkatu dira. Atzerapena kontratistari egotzi ezin zaion arrazoi batengatik gertatzen bada, SPKLko 195.2 artikuluan xedatzen dena aplikatuko da. Nolanahi ere, enpresa kontratistaren atzerapena ezartzeko ez da beharrezkoa izango Lea Ibarreko Mankomunazgoaek aurretik interpelatzea ez hertsatzea. 13.6.- KALTE-GALERAK. Kontratuaren zati bat bete ez, kontratua akatsekin bete edo burutzapenean atzerapena gertatu eta, hala ere, zehapenik ezarri behar ez bada edo, horregatik ezarri beharreko zehapenak ez baditu estaltzen Lea Ibarreko Mankomunazgoai egindako kalteak, horrek kalte-galeren ordaina eskatuko dio enpresa kontratistari. 13.7.- ORDAINKETAK ENPRESA KONTRATISTARI. Enpresa kontratistak eskubidea edukiko du kontratuan ezarritako baldintzekin eta horien aldaketekin (egonez gero) bat etorriz egiten dituen obrak kobratzeko, itundutako prezioak aplikatuz. Ordainketak egiteko modua ezaugarrien taulako V) idatz zatian ezarriko da. Ordainketarako, Lea Ibarreko Mankomunazgoaek egindako obraren ziurtapenak emango ditu hilero, hileko lehen hamabost egunetan, hain zuzen ere. Ziurtapenen ondorioz enpresa kontratistari egiten zaizkion ordainketak konturako ordainketak izango dira, eta azken neurketaren araberako zuzenketak eta aldaketak aplikatuko zaizkie. Ordainketek inolaz ere ez dute ekarriko berekin obrak onartzea ez jasotzea. Egindako prestazioak kontratuan zehaztutakoarekin bat datozela frogatzen duten dokumentuen onarpen egunetik hogeita hamar egun pasatu baino lehen ordaindu beharko du prezio Lea Ibarreko Mankomunazgoaek; nolanahi ere, SPKLko 210. artikuluko 4. idatz zatian ezartzen dena aplikatuko da. Ordainketan atzeratzen bada, epealdia amaitu ondoko berandutze interesak ordaindu beharko dizkio enpresa kontratistari, bai eta kobrantza kostuen ordaina eman ere, abenduaren 29ko 3/2004 Legeak ezartzen duenarekin bat etorriz (horren bidez eragiketa komertzialetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dira), SPKLko 198.4 artikuluan xedatzen den bezala. Enpresa kontratistak ezarritako epealdia edo epealdiak	condiciones especiales de ejecución del contrato que se hubiesen establecido, así como cuando la empresa contratista, por causas imputables a la misma, incumpla la ejecución parcial de las prestaciones definidas en el contrato, se podrá establecer penalidades, si así se recoge en el apartado U) del Cuadro de Características. La empresa adjudicataria queda obligada al cumplimiento del plazo de ejecución del contrato y de los plazos parciales fijados por Lea Ibarreko Mankomunazgoa. Si llegado el término de cualquiera de los plazos citados, la empresa contratista hubiera incurrido en mora por causas imputables a la misma, Lea Ibarreko Mankomunazgoa podrá optar por la resolución del contrato o por la imposición de penalidades económicas. Estas ascenderán a las cuantías establecidas en el apartado U) del Cuadro de Características. Si el retraso fuera producido por motivos no imputables a la empresa contratista, se estará a lo dispuesto en el artículo 195.2 de la LCSP. En todo caso, la constitución en mora de la empresa contratista no requerirá interpelación o intimación previa por parte de Lea Ibarreko Mankomunazgoa. 13.6.- DAÑOS Y PERJUICIOS. En los supuestos de incumplimiento parcial o cumplimiento defectuoso o de demora en la ejecución en que no esté prevista penalidad o en que estándolo la misma no cubriera los daños causados a Lea Ibarreko Mankomunazgoa, ésta exigirá a la empresa contratista la indemnización por daños y perjuicios. 13.7.- ABONOS A LA EMPRESA CONTRATISTA. La empresa contratista tendrá derecho al abono, con arreglo a los precios convenidos, de las obras que realmente ejecute con arreglo a las condiciones establecidas en el contrato y sus modificaciones, si las hubiera, de acuerdo con la forma establecida en el apartado V) del Cuadro de Características. A los efectos del pago, Lea Ibarreko Mankomunazgoa expedirá mensualmente, en los primeros 15 días siguientes al mes que correspondan, las certificaciones que comprendan la obra ejecutada durante dicho período de tiempo. Los abonos a la empresa contratista resultantes de las certificaciones expedidas tienen el concepto de pagos a buena cuenta, sujetos a las rectificaciones y variaciones que se produzcan en la medición final y sin suponer en forma alguna aprobación y recepción de las obras que comprende. Lea Ibarreko Mankomunazgoa tendrá la obligación de abonar el precio dentro del plazo de los treinta días siguientes a la fecha de aprobación de los documentos que acrediten la conformidad con lo dispuesto en el contrato de las prestaciones realizadas, sin perjuicio de lo establecido en el apartado 4 del artículo 210 de la LCSP, y, si se demorase, deberá abonar a la empresa contratista, a partir del cumplimiento de dicho plazo, los intereses de demora y la indemnización por los costes de cobro en los términos previstos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, según dispone el artículo 198.4 de

betetzeko behar baino azkarrago egin ditzake kontratuko lanak, obraren zuzendaritza fakultatiboaren ustez hala jardutea desegokia izan ezean. Hala ere, urtero ezin jaso izango du urtekoaren zenbatekoa baino gehiago, adjudikazio koefizientea aplikatuta, egindako lanen edo emandako ziurtapenen zenbatekoa gorabehera.	la LCSP. La empresa contratista podrá desarrollar los trabajos con mayor celeridad que la necesaria para ejecutar las obras en el plazo o plazos contractuales, salvo que a juicio de la Dirección Facultativa de la obra existiesen razones para estimarlo inconveniente. Sin embargo, no tendrá derecho a percibir en cada año, cualquiera que sea el importe de lo ejecutado o de las certificaciones expedidas, mayor cantidad que la consignada en la anualidad correspondiente, afectada por el coeficiente de adjudicación.
Ezaugarrien taulako W) idatz zatian ezarriz gero, enpresa kontratistak konturako ordainketak jaso ahal izango ditu egindako prestakuntza eragiketengatik (obrarako instalazioak eta materialak edo makina astunak pilatzea). Ordainketa hauek egiteko modua eta bermeak SPKLko 198.3 eta 240. artikuluetan, HAKLAOko 155., 156. eta 157. artikuluetan eta administrazio baldintza orokorren agiriko 54 – 58 arteko baldintzetan ezartzen dira.	Cuando así se establezca en el apartado W) del Cuadro de Características, la empresa contratista tendrá derecho a percibir abonos a cuenta por las operaciones preparatorias realizadas, como instalaciones y acopio de materiales o equipos de maquinaria pesada adscritos a la obra, en la forma y con las garantías que, a tal efecto, determinan los artículos 198.3 y 240 de la LCSP y 155, 156 y 157 del RGLCAP y de acuerdo con las cláusulas 54 a 58 del PCAG.
13.8.- ENPRESA KONTRATISTAREN BETEBEHAR ZEHATZAK ETA ESKA DAITEZKEEN GASTUAK. Kontratuaren araubide juridikoaren ondoriozko betebehar orokorrez gainera honako betebehar berezi hauek ere edukiko ditu kontratistak: a) INGURUMENARI, GIZARTEARI ETA LANARI DAGOKIONEZ. Enpresa kontratatzaileak ingurumenari, gizarteari eta lanari dagozkion indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, Europar Batasuneko zuzenbidean, nazio mailako zuzenbidean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatuarekin lotura duten ingurumen, gizarte eta laneko nazioarteko zuzenbide xedapenetan ezarrita daudenak, eta bereziki SPKLko V. eranskinean ezarritakoak. Zehazki: 1. Eman beharreko prestazioak lan ordenantza edo hitzarmen kolektibo bati lotuta badaude, hitzarmen kolektiboan edo lan ordenantzan ezarritako xedapenak bete behar ditu. 2. Enpresak laneko arriskuen prebentziorako behar diren neurri guztiak ezarri behar ditu. Halaber, indarreko araudiak laneko arriskuak saihesteko ezarritako betebeharrak bete behar ditu eta honako betebehar hauek bete dituela frogatu behar du kontratatutako jarduera hasi aurretik: - Kontratatutako jarduerari dagokion prebentzio jardueraren arriskuak eta plangintza ebaluatzea. - Kontratua betetzeko lanetan ariko diren langileei prebentzioari buruzko trebakuntza eta informazioa ematea. - Beharrezkoak diren banakako babes	13.8.- OBLIGACIONES DE LA EMPRESA CONTRATISTA DE CARÁCTER ESPECÍFICO Y GASTOS EXIGIBLES. Además de las obligaciones generales derivadas del régimen jurídico del presente contrato, existirán específicamente las siguientes obligaciones: a) EN MATERIA MEDIOAMBIENTAL, SOCIAL Y LABORAL. La empresa contratista está obligada al cumplimiento de las disposiciones vigentes en materia medioambiental, social y laboral establecidas en el derecho de la Unión Europea, el derecho nacional, los convenios colectivos o por las disposiciones de derecho internacional medioambiental, social y laboral que vinculen al Estado y en particular las establecidas en el anexo V de la LCSP. En particular: 1. Cuando las prestaciones a desarrollar estén sujetas a ordenanza laboral o convenio colectivo vendrá obligada a cumplir con las disposiciones de la ordenanza laboral y convenio colectivo correspondiente. 2. La empresa adoptará cuantas medidas en el trabajo fueren de pertinente obligación o necesarias en orden a la prevención de los riesgos laborales. Cumplirá así mismo las obligaciones en materia de prevención de riesgos laborales establecidas por la normativa vigente y antes del inicio de la actividad contratada deberá acreditar el cumplimiento de las siguientes obligaciones: - La evaluación de riesgos y planificación de la actividad preventiva correspondiente a la actividad contratada. - La formación e información en materia

ekipamenduak eman direlako egiaztagiria edukitzea.

3. Enpresak lan batzuk azpikontratatzen baditu, azpikontratistei aurreko betebeharren egiaztagiriak eskatu beharko dizkie eta entitate kontratatzaileari eman beharko dizkio. Gainera, segurtasun eta osasun koordinatzaileari jakinarazi behar dizkio azpikontratazioak, lanei ekin aurretik.

4. Langileek lanean ari direla istripua izan edo kalteren bat jasanez gero, adjudikaziodunak indarrean dauden arauek xedatzen dutena bete behar du bere erantzukizunpean. Lea Ibarreko Mankomunazgoaek ez du edukiko inolako erantzukizunik.

5. Legezko arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko akordio batek agintzen duela eta ezaugarrien taulako X) idatz zatian ezarriz gero, enpresa adjudikazioduna enplegatzaile gisa subrogatu beharko da laneko harremanetan eraginpeko langileei dagokienez. SPKLko 130. artikuluan ezartzen dena betetzeko, baldintza teknikoen agirian subrogazioaren eraginpeko langileen kontratuen baldintzei buruzko informazio guztia biltzen da.

b) LAN PROGRAMA. Ezaugarrien taulako AC) idatz zatian ezarriz gero, eta obra guztiz burutzeko urtebete baino gehia beharko dela aurreikusita badago, enpresa kontratistak lan programa aurkeztu beharko du kontratua formalizatzen den egunetik edo obrak hasteko baimena jakinarazten den egunetik hogeita hamar egun pasatu baino lehen, eskaintzan aurkeztutakoa garatzen duen lan programa, hain zuzen.

Gainera, lan programak eranskin hau eduki behar du: lanak egiteko beharrezkotzat jotzen den lan taldea, kategoriaka zehaztuta; adjudikaziodunak bere plantillako langileen berri ere eman beharko du.

Enpresa adjudikaziodunak aurkeztutako lan programa kontratuko dokumentua izango da ondorio guztietarako.

Kontratazio organoak aurkeztu ondoko hamabost egunetan ebatziko du lan programa: onartu egingo du, aldaketak sartuko ditu edo betekizun batzuk ezarriko ditu, kontratuaren klausuletan ezarritakoa eragotzi gabe.

preventiva al personal trabajador que va a emplear en la ejecución del contrato.

- Justificante de la entrega de equipos de protección individual, que en su caso, fueran necesarios.

3. Si la empresa subcontrata parte de los trabajos deberá exigir a las subcontratas los justificantes de las obligaciones anteriores y entregarlos a la entidad contratante. Las empresas deberán, así mismo, poner en conocimiento del coordinador de seguridad y salud las subcontrataciones realizadas con carácter previo al inicio de los trabajos.

4. En el caso de accidente o perjuicio de cualquier género ocurrido a los/las operarios/as con ocasión del ejercicio de los trabajos, cumplirá lo dispuesto en las normas vigentes bajo su responsabilidad, sin que ésta alcance en modo alguno a Lea Ibarreko Mankomunazgoa.

13.10.3.- Enpresa kontratista adjudikaziodunak eta kontratua gauzatzen harekin elkarlanean aritu behar duten enpresa azpikontratistek bete beharko dituzte HFP/1030/2021 Aginduaren 8.2. artikuluan ezarritako informazio eginbeharrak, eta izenpetu beharko dituzte interes gatazkarik ezaren aitorpena, datuak laga eta tratatzeko aitorpena Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (SEEP) jarduketen exekuzioa dela-eta, eta konpromiso aitorpena Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (SEEP) jarduketen exekuzioa dela-eta.	13.10.3.- La empresa contratista adjudicataria y las empresas subcontratistas que vayan a colaborar con él en la ejecución del contrato cumplirán las obligaciones de información previstas en el artículo 8.2. de la Orden HFP/1030/2021, y suscribirán las declaraciones de ausencia de conflicto de intereses, de cesión y tratamiento de datos en relación con la ejecución de actuaciones del plan de recuperación, transformación y resiliencia (PRTR) y de compromiso en relación con la ejecución de actuaciones del plan de recuperación, transformación y resiliencia (PRTR).
2. artikuluan aurreikusitako informazio-betebeharrak betetzeari dagokionez, Ministerio-aginduaren 8.2 artikuluaren arabera, betebehar horiek honako hauei buruzkoak dira: - Kontratistaren edo azpikontratisten IFZ. - Izena edo sozietatearen izena. - Kontratistaren eta, hala badagokio, azpikontratisten helbide fiskala. - Funtsen azken onuradunaren benetako titularrari buruzko informazioa, HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan aurreikusitako moduan. «Benetako titulartzat» hartzen da kontratistaren eta azpikontratistaren azken jabetza edo kontrola duen pertsona fisikoa edo pertsona fisikoak.	En lo relativo al cumplimiento de las obligaciones de información previstas en el art. 8.2 de la orden ministerial, señalar que dichas obligaciones se refieren a: - NIF del contratista o subcontratistas. - Nombre o razón social. - Domicilio fiscal del contratista y, en su caso, de los subcontratistas. - Información relativa al titular real del beneficiario final de los fondos en la forma prevista en el artículo 10 de la Orden HFP/1031/2021. Se entiende como «titular real»: la persona o personas físicas que tengan la propiedad o el control en último término del contratista y subcontratista.
Beraz, halakorik balego, obraren zuzendariak azpikontratistaren datuak eskatu beharko dizkio kontratistari.	Por lo tanto, si lo hubiera, el director de la obra tendrá que solicitar al contratista estos datos del subcontratista.
Gainera, kontratistak inplikatutako administrazio publikoen	Además, la contratista acepta la cesión de datos entre las

arteko datu-lagapena onartzen du, aplikatzekoa den Europako araudian aurreikusitakoa betetzeko, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin bat etorriz.	Administraciones Públicas implicadas para dar cumplimiento a lo previsto en la normativa europea que es de aplicación y de conformidad con la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.
Azkenik, kontratistak erantzukizunpeko adierazpena sinatuko du, PRTRn ezarritako zeharkako printzipioak betetzeari buruzkoa eta kudeaketa-eremuari eragin diezaioketenak betetzeari buruzkoa.	Por último, la contratista firmará la Declaración responsable relativa al cumplimiento de los principios transversales establecidos en el PRTR y que pudieran afectar al ámbito de gestión.
13.10.4.- Enpresa kontratista adjudikaziodunak eta kontratua gauzatzen harekin elkarlanean aritu behar duten enpresa azpikontratistek behartuta egongo dira funtsen azken hartzaileei buruzko informazioa ematera HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan ezarritako moduan.	13.10.4.- La empresa contratista adjudicataria y las empresas subcontratistas que vayan a colaborar con él en la ejecución del contrato quedarán obligadas a aportar la información sobre perceptores finales de fondos en la forma prevista en el artículo 10 de la Orden HFP/1031/2021.
13.10.5.- Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluan ezarritako betebeharra betez, kontratua Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan gauzatzearekin zerikusia duten komunikazio-jarduketa guztietan, kontratistek eta azpikontratistek modu nabarmen eta ikusgarrian erakutsi beharko dute Europar Batasunaren enblema; halaber, jasotako finantzaketaren adierazpena ere erantsi beharko dute honako erreferentzia honekin: «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana — Europar Batasunak finantzatua — NextGenerationEU».	13.10.5.- En cumplimiento de la obligación establecida por el artículo 9 de la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, por la que se configura el sistema de gestión del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, en todas las actuaciones de comunicación relacionadas con la ejecución del contrato en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, los contratistas y subcontratistas deberán exhibir de forma destacada y visible el emblema de la Unión Europea, en la que se incluirá, además, una declaración de la financiación recibida con la siguiente referencia: "Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia – Financiado por la Unión Europea - NextGenerationEU".
Europar Batasunaren enblemak desberdin eta bereizita egon beharko du, eta ezingo da aldatu bestelako ikus-marka, marka edo testuak gehituz.	El emblema de la Unión Europea deberá permanecer distinto y separado y no podrá modificarse añadiendo otras marcas visuales, marcas o texto.
Gauzatutako jarduerei buruzko informazio- eta komunikazio-neurri horiek informazio-karteletan, plaketan, argitalpen inprimatuetan eta elektronikoetan, ikus-entzunezko materialean, webguneetan, prentsako iragarki eta txertaketetan, ziurtagirietan eta abarretan sartuko dira. Informazio-kartel eta plaka guztiak edonork ondo ikusteko moduko leku batean jarri beharko dira.	Estas medidas de información y comunicación de las actuaciones desarrolladas se incluirán en carteles informativos, placas, publicaciones impresas y electrónicas, material audiovisual, páginas web, anuncios e inserciones en prensa, certificados, etc. Todos los carteles informativos y placas deberán colocarse en un lugar bien visible y de acceso al público.
13.10.6.- Kontratu hau gauzatzean, enpresa kontratista adjudikazioduna Europako Batzordearen, Iruzurraren aurkako Bulegoaren, Europako Kontu Epaitegiaren eta Europako Fiskaltzaren kontrolei loturik egongo da, eta haiek kontratuaren inguruko edozein informazio lortzeko eskubidea izango dute.	13.10.6.- En la ejecución de este contrato, la empresa contratista adjudicataria quedará sujeta a los controles de la Comisión Europea, la Oficina de Lucha Antifraude, el Tribunal de Cuentas Europeo y la Fiscalía Europea, quienes tendrán derecho al acceso a cualquier información sobre el contrato.
13.10.7.- Artikulu horretan ezarritako betebeharrari jarraikiz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren 132 artikuluaren arabera, kontratistek eta azpikontratistek erregistro bat izango dute, eta finantzaketari buruzko egiaztagiriak, datu estatistikoak eta gainerako agiriak gordeko dituzte bertan, bai eta formatu elektronikoko erregistroak eta dokumentuak ere, saldoa –edo, ordainketa horren ezean, eragiketa– ordaindu eta bost urteko epean. Aldi hori hiru urtekoa izango da finantzaketa 60	13.10.7.- En cumplimiento de la obligación establecida por el art. 132 del Reglamento (UE, Euratom) 2018/1046, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 18 de julio de 2018, los contratistas y subcontratistas mantendrán un registro y conservarán los documentos justificativos, los datos estadísticos y demás documentación concerniente a la financiación, así como los registros y documentos en formato electrónico, durante un período de cinco años a partir del pago del saldo o, a falta de dicho pago, de la operación. Este período será de tres años si la financiación

000 eurokoa edo txikiagoa bada.	es de un importe inferior o igual a 60.000 EUR.
Auditoriei, errekurtsoei, auziei, konpromiso juridikoei edo Iruzurraren aurkako Borrokarako Bulegoaren ikerketei buruzko erreklamazioen izapidetzeari buruzko erregistroak eta dokumentuak, bestalde, auditoria, errekurtso, auzi, erreklamazio-izapidetze edo ikerketa horiek amaitu arte gordeko dira. Iruzurraren aurkako Borrokarako Bulegoak egindako ikerketei buruzko erregistro eta dokumentuen kasuan, erregistroak eta dokumentuak gordetzeko betebeharra ikerketa horiek hartzaileari jakinarazi ondoren aplikatuko da.	Los registros y documentos relativos a auditorías, recursos, litigios, la tramitación de reclamaciones relativas a compromisos jurídicos o relativos a investigaciones de la OLAF se conservarán hasta que dichas auditorías, recursos, litigios, tramitación de reclamaciones o investigaciones hayan concluido. En el caso de los registros y documentos relativos a investigaciones de la OLAF, la obligación de conservar los registros y documentos se aplicará una vez que dichas investigaciones hayan sido notificadas al perceptor.
Erregistroak eta dokumentuak gordetzeko hiru aukera daude: jatorrizkoak; jatorrizkoen kopia konpultsatuak; edo orokorrean onartutako datu-euskarriak, hala nola jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo bertsio elektronikoan soilik existitzen diren dokumentuak. Bertsio elektronikoak existitzen direnean, ez dira beharrezkoak izango originalak, baldin eta dokumentu horiek legezko baldintza aplikagarriak betetzen badituzte, auditoria-ondorioetarako jatorrizkoen baliokide eta fidagarritzat jo ahal izateko.	Los registros y documentos se conservarán, bien en forma de originales, bien en forma de copias compulsadas de originales, bien en soportes de datos comúnmente aceptados, entre ellos versiones electrónicas de documentos originales o documentos existentes únicamente en versión electrónica. Cuando existan versiones electrónicas, no serán necesarios originales si dichos documentos cumplen los requisitos legales aplicables para que puedan ser considerados equivalentes a originales y fiables a efectos de auditoría.
13.11.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA. Kontratuaren lagapenerako SPKLko 214. artikuluan ezartzen dena aplikatuko da. Kontratuaren adjudikazioa daukan enpresak haren zati bat hirugarren batzuei azpikontratatu nahi izanez gero, SPKLko 215. artikuluan ezartzen dena bete beharko du, eta enpresa azpikontratisten eta hornitzaileen ordainketak lege bereko 216. artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz egin behar ditu.	13.11.- CESIÓN DEL CONTRATO Y SUBCONTRATACIÓN. En materia de cesión del contrato se estará a lo previsto en el artículo 214 de la LCSP. En cuanto a la contratación por la empresa adjudicataria de la realización parcial del contrato con terceros estará sujeta a los requisitos establecidos en el artículo 215 de la LCSP, así como el pago a las empresas subcontratistas y suministradoras deberá ajustarse a lo dispuesto en el artículo 216 de la LCSP.
Azpikontratazioaren gehieneko ehunekoa ezaugarrien taulako Y) idatz zatian zehaztuta egongo da; bertan ezarriz gero, enpresa lizitatzaileek eskaintzan honako datu hauek eman beharko dituzte: zenbat azpikontratatzeko asmoa duten, azpikontratazioaren zenbatekoa, eta lanak gauzatzeko aginduko zaien enpresa azpikontratisten izenak edo profilak, gaitasun profesional edo teknikoko baldintzen arabera zehaztuta.	El porcentaje máximo de subcontratación será el establecido en el apartado Y) del Cuadro de Características, y si así señala en él las empresas licitadoras deberán indicar en la oferta la parte del contrato que tengan previsto subcontratar, señalando su importe, y el nombre o el perfil empresarial, definido por referencia a las condiciones de solvencia profesional o técnica, de las empresas subcontratistas a las que se vaya a encomendar su realización.
Edonola ere, kontratua adjudikatu ondoren, eta gehienez ere kontratua egiten hasten denerako, enpresa kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio organoari azpikontratuak egiteko asmoa duela, adierazi beharko du zenbat nahi duen azpikontratatu, zer enpresa azpikontratatuko duen, nor den enpresa azpikontratistaren legezko ordezkaria (edo ordezkariak), eta harremanetarako datuak eman beharko ditu. Horrez gain, justifikatu egin beharko du enpresak behar besteko gaitasuna duela lanak egiteko, elementu tekniko eta giza baliabideei eta esperientziari dagokionez, eta baieztatu egin beharko du enpresak ez duela kontratatzeko debekurik, eta informazio hori kontratu nagusia gauzatzean aldatzen bada, horren berri eman beharko du, bai eta enpresa azpikontratista berriei buruzko informazio berri guztia ere.	En todo caso, la empresa contratista deberá comunicar por escrito, tras la adjudicación del contrato y, a más tardar, cuando inicie la ejecución de este, al órgano de contratación la intención de celebrar los subcontratos, señalando la parte de la prestación que se pretende subcontratar y la identidad, datos de contacto y representante o representantes legales de la empresa subcontratista, y justificando suficientemente la aptitud de ésta para ejecutarla por referencia a los elementos técnicos y humanos de que dispone y a su experiencia, y acreditando que la misma no se encuentra incursa en prohibición de contratar, así como cualquier modificación que sufra esta información durante la ejecución del contrato principal, y toda la información necesaria sobre las nuevas empresas subcontratistas.
13.12.- KONTRATUA ALDATZEA. Kontratu hau interes	13.12.- MODIFICACIÓN DEL CONTRATO. El presente contrato sólo podrá ser modificado por razones de interés público en los casos y en la forma previstas en el apartado Z)

publikoko arrazoiengatik aldatu ahal izango da bakarrik, ezaugarrien taulako Z) idatz zatian edo SPKLko 205. artikuluan ezartzen den bezala (kasuak eta modua), SPKLko 207. artikuluan arautzen den prozedurarekin bat eginez. SPKLko 242. artikulua eta HAKLAOko 158 - 162 bitarteko artikuluak ere aplikatu beharko dira.	del Cuadro de Características o en el artículo 205 de la LCSP y de acuerdo con el procedimiento regulado en el artículo 207 de la LCSP. Serán también de aplicación los artículos 242 de la LCSP y 158 a 162 del RGLCAP.
Kasu hauetan, kontratazio organoak erabakitako aldaketak derrigorrezkoak izango dira enpresa kontratistarentzat; hala ere, 205. artikuluan zehazten diren kontratu aldaketak ez dira derrigorrezkoak izango, horiek derrigorrezkoak izateko gertatu behar baita banaka edo batera kontratuaren hasierako prezioa ez aldatzea ehuneko 20 baino gehiago, BEZ kanpo.	En estos casos, las modificaciones acordadas por el órgano de contratación serán obligatorias para la empresa contratista, excepto en los supuestos de modificación del contrato recogidos en el artículo 205, que únicamente serán obligatorias cuando impliquen, aislada o conjuntamente, una alteración en su cuantía que no exceda del 20 por ciento del precio inicial del contrato, IVA excluido.
Obraren zuzendaritza fakultatiboak proiektua aldatu behar dela uste badu, baimena eskatuko dio kontratazio organoari bidezko espedientea hasteko eta proposamena idatziko du; proposamenarekin batera aldaketa justifikatzen, azaltzen eta baloratzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.	Cuando la Dirección Facultativa de la obra considere necesaria una modificación del proyecto, recabará del órgano de contratación autorización para iniciar el correspondiente expediente redactando la oportuna propuesta integrada por los documentos que justifiquen, describan y valoren aquélla.
Aldaketa izapidetzeko obrak (batzuk edo denak) aldi batez eten behar badira eta horrek kalte handia egiten badio interes publikoari, kontratazio organoak behin-behinean obretan jarraitzea erabaki ahal izango du, zuzendaritza fakultatiboak egingo duen proposamen teknikoari lotuta, baldin eta aurreikusitako zenbatekoa kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20 baino gehiago ez bada eta kreditu nahikoa eta egokia badago hura finantzatzeko.	Cuando la tramitación de una modificación exija la suspensión temporal, parcial, o total de la ejecución de las obras y ello ocasione graves perjuicios para el interés público, el órgano de contratación podrá acordar que continúen provisionalmente las mismas, tal y como esté prevista en la propuesta técnica que elabore la Dirección Facultativa, siempre que el importe máximo previsto no supere el 20 % del precio primitivo del contrato y exista crédito adecuado y suficiente para su financiación.
Ez obren zuzendaritza fakultatiboak ez enpresa kontratistak ezin izango dituzte sartu ez egin aldaketak kontratuaren xede diren obretan, aurretik kontratazio organoak aldaketa eta haren ondoriozko aurrekontua onartu gabe.	Ni la Dirección Facultativa de las obras ni la empresa contratista podrán introducir o ejecutar modificaciones en las obras comprendidas en el contrato sin la debida aprobación de la modificación y del presupuesto resultante como consecuencia de ella por el órgano de contratación.
Hala ere, aldaketa batzuk onarpena jaso gabe egin daitezke, hain zuzen ere benetan egindako unitateak aldatzea (proiektuko neurketetan ezarritakoak ez beste batzuk), baldin eta gastuaren gehikuntza kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 10 baino gehiago ez bada.	No obstante, podrán introducirse variaciones sin necesidad de previa aprobación cuando éstas consistan en la alteración en el número de unidades realmente ejecutadas sobre las previstas en las mediciones del proyecto, siempre que no representen un incremento del gasto superior al 10% del precio primitivo del contrato.
13.13.- KONTRATUA ETETEA. Honetaz SPKLko 208. artikuluan eta HAKLAOko 103., 170. eta 171. artikuluetan ezartzen dena aplikatuko da.	13.13.- SUSPENSIÓN DEL CONTRATO. En materia de suspensión se estará a lo señalado en el artículo 208 de la LCSP y 103, 170 y 171 del RGLCAP.
Kontratua aldi batez (zati bat edo dena) edo behin betiko eteten bada, etete akta egingo da (obren zuzendaritza fakultatiboak eta enpresa kontratistak sinatu behar dute) eta bertan honako datu hauek jaso behar dira: Lea Ibarreko Mankomunazgoaek kontratua eteteko hartutako erabakia, etetea eragin duten inguruabarrak, lanen burutzapena zertan den eta eteteak ukitzen dituen kontratuaren zatiak.	En los supuestos de suspensión parcial o total, temporal o definitiva, se levantará la correspondiente Acta de Suspensión, que deberá ir firmada por la Dirección Facultativa de las obras y la empresa contratista, en la que se hará constar el acuerdo de Lea Ibarreko Mankomunazgoa que originó la suspensión, las circunstancias que la han ocasionado y la situación de hecho en la ejecución del contrato, definiéndose concretamente la parte o partes o la totalidad de las obras afectadas por aquélla.
Etetea erabakitzen denean, Lea Ibarreko Mankomunazgoaek enpresa kontratistari jasandako kalte-galerak ordainduko dizkio SPKLko 208.2 artikuluan adierazitako arauekin bat	Acordada la suspensión, Lea Ibarreko Mankomunazgoa abonará a la empresa contratista los daños y perjuicios efectivamente sufridos por ésta con sujeción a las reglas señaladas en el artículo 208.2 de la LCSP. Es causa de resolución del contrato la suspensión de las

eginez. Lea Ibarreko Mankomunazgoaek obrak zortzi hilabete baino aldi luzeagoa etetea kontratua suntsiarazteko arrazoia da. 13.14.- OBRAK ONARTZEA. Obren onarpena SPKLko 210. eta 243. artikuluetan, HAKLAOko 163. artikuluan eta hurrengoetan eta administrazio baldintza orokorren agiriko 71. baldintzan eta hurrengoetan zehaztutakoarekin bat etorriz egingo da. 13.14.1.- Enpresa kontratistak obra oso-osorik egindakoan, kontratuan ezarri bezala, kontratua betetzat joko da, Lea Ibarreko Mankomunazgoa ados badago. Enpresa kontratistak, edo beraren ordezkariak, idatziz jakinarazi behar dio obren zuzendaritza fakultatiboari obrak amaitzeko aurreikusitako data, berrogeita bost egun baliodun lehenago gutxienez. Obra idatzizko jakinarazpena egindakoan onartuko da, gehienez ere kontratua bukatu eta hilabete pasatu aurretik, edo ezaugarrien taulako AA) idatz zatian ezartzen den aldian. Onarpen akta egingo da eta egintzan aritzen diren pertsona guztiek sinatu behar dute. Akta horretan obrak ondo eta kontratuan ezarri bezala dauden argitu behar da. Hala izanez gero, zuzendaritza fakultatiboak obrak jasotzat emango ditu, eta ondoren berme aldia hasiko da. Obrak onartzeko moduan ez badaude, aktan adieraziko da, eta zuzendaritza fakultatiboak ikusitako akatsak adieraziko ditu eta jarraibide zehatzak azalduko ditu; gainera, horiek konpontzeko epealdia ezarriko du. Epealdi horretan enpresa kontratistak zuzenketak egiten ez baditu, beste epealdi luzaezin bat eman ahal izango zaio, edo kontratua suntsiarazitzat jo ahal izango da. Ezaugarrien taulan obrak burutzeko epealdi partzialak ezarriz gero, Lea Ibarreko Mankomunazgoaek onarpen partzialak egin ahal izango ditu. Aparteko kasuetan, interes publikoa dela eta (arrazoiak azaldu behar dira) Lea Ibarreko Mankomunazgoaek obrak okupatzea edo herritarren erabilerarako zerbitzuan jartzea erabakitzen badu, nahiz eta onarpen egintza formalik izan ez, halako egintzen berezko ondorioak sortuko dira aparteko inguruabarrak gertatzen direnetik, arauz ezarritakoarekin bat etorriz. 13.14.2.- Kontratazio organoak hiru hileko epealdia edukiko du onarpena egiten denetik egindako obren azken ziurtapena onartzeko. Ziurtapena enpresa kontratistari ordainduko zaio kontratuaren likidazioaren kontura. 13.15.- BERME ALDIA. Onarpen akta egiten denetik berme aldia hasiko da zenbatzen (ezaugarrien taulako AB) idatz	obras por un plazo superior a ocho meses acordada por Lea Ibarreko Mankomunazgoa. 13.14.- RECEPCIÓN DE LAS OBRAS. La recepción de las obras se realizará conforme a lo dispuesto en los artículos 210 y 243 de la LCSP y 163 y siguientes del RGLCAP y en las cláusulas 71 y siguientes del PCAG. 13.14.1.- El contrato se entenderá cumplido por la empresa contratista cuando ésta haya realizado, de acuerdo con los términos del mismo y a satisfacción de Lea Ibarreko Mankomunazgoa, la totalidad de la obra. La empresa contratista o su delegada comunicarán por escrito a la Dirección Facultativa de las obras, la fecha prevista para su terminación, con una antelación mínima de cuarenta y cinco días hábiles. La recepción de la obra se realizará una vez efectuada la comunicación escrita y como máximo dentro del mes siguiente a su terminación, o en el plazo que se determine en el apartado AA) del Cuadro de Características. De la recepción se extenderá la correspondiente acta, que será suscrita por todas las personas que concurran al acto, y en la que se hará constar si las obras se encuentran en buen estado y con arreglo a las prescripciones previstas, en cuyo caso la Dirección Facultativa de las obras las dará por recibidas, comenzando entonces el plazo de garantía. Cuando las obras no se hallen en estado de ser recibidas se hará constar así en el acta y la Dirección Facultativa de las mismas señalará los defectos observados y detallará las instrucciones precisas fijando un plazo para remediar aquellos. Si transcurrido dicho plazo la empresa contratista no lo hubiere efectuado, podrá concedérsele otro nuevo plazo improrrogable o declarar resuelto el contrato. Lea Ibarreko Mankomunazgoa podrá efectuar recepciones parciales de las obras, en el caso de que se hubiese establecido en el Cuadro de Características la existencia de plazos de cumplimiento parcial. Siempre que por razones excepcionales de interés público debidamente motivadas Lea Ibarreko Mankomunazgoa acuerde la ocupación efectiva de las obras o su puesta en servicio para el uso público, aún sin el cumplimiento del acto formal de recepción, desde que concurran dichas circunstancias se producirán los efectos y consecuencias propios del acto de recepción de las obras y en los términos en que reglamentariamente se establezcan. 13.14.2.- Dentro del plazo de tres meses contados a partir de la recepción, el órgano de contratación deberá aprobar la certificación final de las obras ejecutadas, que será abonada a la empresa contratista a cuenta de la liquidación del contrato. 13.15.- PLAZO DE GARANTÍA. A partir de la fecha del acta de recepción, comenzará a contar el plazo de garantía que figura en el apartado AB) del Cuadro de Características, sin que pueda ser inferior a un año, salvo casos especiales. No obstante, en aquellas obras cuya perduración no tenga finalidad práctica como los sondeos y prospecciones que

zatian ezartzen da). Urtebetekoa izango da gutxienez, kasu berezietan izan ezik. Hala ere, obrak irauteko asmoarekin egin ez badira (zundaketak eta prospekzioak, esaterako), emaitza onik lortu ez badute edo artapenaz gaindiko lanak eragiten badituzte (dragatzea), ez da eskatuko berme aldirik.	hayan resultado infructuosos o que por su naturaleza exijan trabajos que excedan del concepto de mera conservación como los de dragados no se exigirá.
Berme aldian enpresa kontratistak obraren akats eta bizioen erantzukizuna edukiko du. Gainera, obra artatu eta zaindu behar du baldintza teknikoen agirian ezarritakoari eta obren zuzendaritza fakultatiboak emandako jarraibideei lotuta. Obran gertatzen diren berezko kalteen erantzukizuna edukiko du.	Durante el plazo de garantía la empresa contratista será responsable por los defectos o vicios que puedan manifestarse en la obra, y asimismo, estará obligada a la guarda y conservación de la obra, con arreglo a lo previsto en el pliego de prescripciones técnicas y a las instrucciones que dicte la Dirección Facultativa de las obras, siendo responsable de los daños intrínsecos que en ella se produzcan.
13.16.- LIKIDAZIOA. Berme aldia amaitu aurreko hamabost egunetan obraren zuzendaritza fakultatiboak, ofizioz zein enpresa kontratistak eskatuta, obraren egoerari buruzko txostena idatziko du, SPKLko 243.3 artikuluan eta HAKLAOko 169. artikuluan arautzen diren ondorioetarako. Hauek dira: - Txostena aldekoa bada, enpresa kontratistak ez du geroztik inolako erantzukizunik edukiko, ezkutuko akatsengatikoaz besterik, eta bermea itzuliko zaio (edo kitatu egingo da), kontratua likidatuko da eta, beharrezkoa bada, ordaindu gabe dauden betebeharrak ordainduko dira. - Txostena aldekoa ez bada eta antzemandako akatsak obra lanen ondoriozkoak badira, hau da, ez badira erabilerak sortuak, berme aldian zuzendaritza fakultatiboak bidezko jarraibideak eman ahal izango dizkio enpresa kontratistari eraikitakoa zuzentzeko, eta horretarako epealdia ezarriko dio. Epealdi horretan enpresa kontratistak obrak artatzen jarraitu beharko du, eta ez du dirurik batere jasoko berme aldia luzatzeagatik.	13.16.- LIQUIDACIÓN. Dentro del plazo de quince días anteriores al cumplimiento del plazo de garantía, la Dirección Facultativa de la obra, de oficio o a instancia de la empresa contratista, redactará un informe sobre el estado de las obras con los efectos señalados en los artículos 243.3 de la LCSP y 169 del RGLCAP, que son los siguientes: - Si el informe fuera favorable, la empresa contratista quedará relevada de toda responsabilidad, salvo la responsabilidad por vicios ocultos, procediéndose a la devolución o cancelación de la garantía, a la liquidación del contrato y, en su caso, al pago de las obligaciones pendientes. - En el caso de que el informe no fuera favorable y los defectos observados se debiesen a deficiencias en la ejecución de las obras y no al uso de lo construido durante el plazo de garantía, la Dirección Facultativa procederá a dictar las oportunas instrucciones a la empresa contratista para la debida reparación de lo construido, concediéndole un plazo para ello durante el cual continuará encargada de la conservación de las obras, sin derecho a percibir cantidad alguna por ampliación del plazo de garantía.
Hala ere, obra berme aldia amaitutakoan narriatzen bada eraikuntzako ezkutuko akatsen erruz, hain zuzen ere enpresa kontratistak kontratua bete ez duelako, honek kalte-galeren erantzukizuna edukiko du hamabost urtean obra jasotzen denetik.	No obstante, si la obra se arruina con posterioridad a la expiración del plazo de garantía por vicios ocultos de la construcción, debido a incumplimiento del contrato por parte de la empresa contratista, responderá ésta de los daños y perjuicios durante el término de quince años a contar desde la recepción de la obra.
13.17.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA. Kontratua SPKLko 211. eta 245. artikuluetan ezartzen diren kasuetan suntsiaraziko da. Kontratua suntsiaraztea kontratazio organoak erabakiko du, ofizioz zein enpresa kontratistak eskatuta (entzunaldia bermatu behar zaio). Suntsiarazpenak SPKLko 212., 213. eta 246. artikuluetan, HAKLAOko 110 - 113 bitarteko artikuluetan eta 172. artikuluan ezartzen diren ondorioak sortuko ditu. Ezaugarrien taulako U) idatz zatian kontratua ez betetzeagatik zehapenak ezarri ezean, burutzapen baldintza bereziak, ezaugarrien taulako X) idatz zatian zehazten direnak, kontratuaren ezinbesteko betebeharrak izango dira	13.17.- RESOLUCIÓN DEL CONTRATO. La resolución del contrato tendrá lugar en los supuestos que se señalan en los artículos 211 y 245 de la LCSP y se acordará por el órgano de contratación, de oficio o a instancia de la empresa contratista, mediante procedimiento en el que se garantice la audiencia de ésta y con los efectos previstos en el artículo 212, 213 y 246 de la LCSP y 110 a 113 y 172 del RGLCAP. Salvo que se hayan establecido penalidades por su incumplimiento en el apartado U) del Cuadro de Características, las condiciones especiales de ejecución especificadas en el apartado X) del Cuadro de Características tendrán carácter de obligaciones esenciales del contrato a efectos de lo previsto en el artículo 211.f) de la

SPKLko 211.f) artikuluan ezartzen denaren ondorioetarako.	LCSP.
Halaber, ondorio horietarako, kontratuko funtsezko eginbehartzat emango da ezaugarrien taulako J) apartatuan eskatutako nahiko giza baliabide edo baliabide material atxikitzeko konpromisoa, bai eta 13.10 klausulan jasotzen diren exekuzio baldintzak ere.	Asimismo se considerarán a dichos efectos obligaciones esenciales del contrato, el compromiso de adscripción de medios personales o materiales suficientes exigido en el apartado J) del Cuadro de Características, así como las condiciones de ejecución recogidas en la cláusula 13.10.
Kontratua enpresa adjudikaziodunaren erruz suntsitzen bada, behin betiko bermea atxikiko zaio eta, gainera, bermearen zenbatekoak kalteak estaltzen ez baditu, kalte-galeren ordaina ere eskatuko zaio.	Cuando el contrato se resuelva por culpa de la empresa adjudicataria, le será incautada la garantía definitiva, sin perjuicio de la indemnización, en su caso, por daños y perjuicios originados a Lea Ibarreko Mankomunazgoa, en lo que excedan del importe de garantía incautada.
13.18.- KONFIDENTZIALTASUNA. Agiri honen xedea gauzatzeko Administrazioaren titulartasuneko fitxategietako datu pertsonalak eta tratamenduak erabili behar badira, entitate adjudikaziodunak tratatu beharreko datuen tratamenduaren arduradun gisa jardungo du, bat etorriz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datuen babesarenak (DBEO), 28. artikuluan eta Estatuan hura garatzen duen araudiak xedatutakoarekin. Konfidentzialtasunari buruzko klausuletan arautuko da nola tratatu behar dituzten hirugarrenek datu pertsonalak. Entitate adjudikaziodunak bete beharreko agirien ereduak agiri honen XII. eranskinean daude.	13.18.- CONFIDENCIALIDAD. En el supuesto de que la ejecución de la prestación objeto del presente Pliego conlleve la necesidad de acceder a datos personales y a tratamientos contenidos en ficheros titularidad de la Administración, la entidad que resulte adjudicataria actuará en calidad de Encargado del Tratamiento de los datos objeto de tratamiento, habida cuenta de lo dispuesto en el artículo 28 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016 de Protección de Datos (RGPD), y en su normativa de desarrollo estatal. El tratamiento de datos de carácter personal por cuenta de terceros se regulará a través de las cláusulas de confidencialidad preceptivas. Los modelos de documentos a completar por la entidad adjudicataria se anexan al presente Pliego, en el Anexo XII.
Era berean, adjudikazioaren publikotasunari eta enpresa hautagai eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruzko SPKLko xedapenak albo batera utzi gabe, kontratazio organoak ezin izango du hedatu enpresek III. eranskinean konfidentzialtzat (sekretu tekniko edo komertzialak direla eta) jotako informazioa. Hala, enpresak arrazoitu egin beharko du zergatik diren konfidentzialak.	Asimismo, sin perjuicio de las disposiciones de la LCSP relativas a la publicidad de la adjudicación y a la información que deba darse a las empresas candidatas y a las licitadoras, el órgano de contratación no podrá divulgar la información facilitada por las empresas que éstas hayan designado como confidencial en el anexo III por razón de su vinculación a secretos técnicos o comerciales, exponiendo las razones que justifican dicha vinculación.
VI.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA	**VI.-NATURALEZA, RÉGIMEN JURÍDICO Y JURISDICCIÓN COMPETENTE**
14.- IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA	**14.- NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO**
14.1.- Kontratazio organoaren eskumenak dira: kontratu administratiboak interpretatzea; kontratua betetzean sortzen diren zalantzak argitzea; kontratuak aldatzea interes publikoko arrazoiak direla eta; kontratua gauzatzean enpresa kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna adieraztea; kontratua etetea; kontratua suntsiaraztea eta horren ondorioak zehaztea. Egiteko horietan SPKLk eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, Administrazio publikoen kontratuen Legearen arautegi orokorra onartzen duenak, ezartzen dituzten mugak eta baldintzak aplikatuko dira.	14.1.- El órgano de contratación ostenta la prerrogativa de interpretar los contratos administrativos, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlos por razones de interés público, declarar la responsabilidad imputable a la empresa contratista a raíz de la ejecución del contrato, suspender la ejecución del mismo, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos señalados en la LCSP y por el Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
Era berean, kontratazio organoak enpresa kontratistek kontratua burutzeko lanetan egindako jarduerak ikuskatzeko eskumena du, aurreko lege horretan ezartzen den bezala eta bertan zehaztutako mugen barnean.	Igualmente, el órgano de contratación ostenta las facultades de inspección de las actividades desarrolladas por las empresas contratistas durante la ejecución del contrato, en los términos y con los límites establecidos en la citada Ley. Los acuerdos que dicte el órgano de contratación, en el

Kontratazio organoak kontratuak interpretatzeko, aldatzeko eta ebazteko ahalmenez baliatuta ematen dituen erabakiak berehala bete beharko dira. 14.2.- Kontratu honen interpretazioaz, aldaketaz, suntsiarazpenaz eta ondorioez sortzen diren auziak kontratazio organo eskudunak ebatziko ditu. Honen erabakiek administrazio bidea agortuko dute, eta haien kontra administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen legeak ezarritakoarekin bat etorrita, eta kontuan izanda interesdunek berraztertzeko errekurtsoa jar dezaketela, 39/2015 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 123. eta 124. artikuluetan ezartzen duenarekin bat etorriz. 14.3.- SPKLko 44.2 artikuluan zehazten diren ekimenei buruz administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri aurretik kontratazioaren alorreko errekurtso berezia jarri ahal izango da.	ejercicio de sus prerrogativas de interpretación, modificación y resolución serán inmediatamente ejecutivos. 14.2.- Las cuestiones litigiosas surgidas sobre la interpretación, modificación, resolución y efectos del presente contrato serán resueltas por el órgano de contratación competente, cuyos acuerdos pondrán fin a la vía administrativa y contra los mismos habrá lugar a recurso contencioso-administrativo, conforme a lo previsto por la Ley reguladora de dicha jurisdicción, sin perjuicio de que las empresas interesadas puedan interponer recurso potestativo de reposición, previsto en los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. 14.3.- Serán susceptibles de recurso especial en materia de contratación previo a la interposición del recurso contencioso-administrativo los actos a que se refiere el artículo 44.2 de la LCSP.